

FUNTSEZKO JARDUERA

Gure gailua aurrera eramateko 3 pausu garrantzitsu daude.

NFWaren diseinua:

Proiektu honen diseinua bezeroen beharren arabera egin dugu eta janaria ez xahutzen lagundu ahal dituzten erabilerak sortuz. Eskainiko dugun funtsezko erabilera, janaria alferrik ez galtzea, eta honek dakarren diru xahuketa saihestea da. Horretaz aparte, beste eginkizun batzuk izango ditu; errezeta ideiak eskaintzea eta birziklatzeko eta botatzeko pausuak eta aukerak ematea. Gauza hauei esker, bezeroek dirua aurreztuko dute eta NFWaren prezioa urte batzuetan amortizatuko da.

Oso sinplea denez, teknologian aditua izan gabe ere arazorik gabe erabiltzea posiblea izango da.

Tablet baten antza du, eta jende gehienak tabletak erabiltzen dituzenez, ez zaie hain ezberdina irudituko beste gailu teknologikoekin konparatuz. Halaber, erraztasun batzuk izango ditu janariaren datuak sartzekoan. Eskuz ez sartzeko barra kodearen bidez sartu ahal izango dira adibidez.

NFWaren ekoizpena:

Hasteko, beharrezkoak diren piezak guk egingo ez ditugunez, hainbat enpresei erosiko dizkiegu. Espainiako enpresak izango dira, hortaz, ez dugu esplotazioaren bidez sortutako produkturik erabiliko. Behin piezak edukita, gure fabrian muntatuko dugu. Softwareari dagokionez, gure langileek diseinatuko dute, eta eguneraketak atera ahala, bezeroek deskargatu eta instalatu ahal izango dituzte.

NFW saldu:

Ez dugu denda propiorik izango, hori dela eta, beste enpresei salduko diegu produktua eta haien denden bitartez bezeroek erosiko dute. Hala ere, produktuaren argibideetan gure telefono zenbakia egongo da, bezeroekin kontaktuan egoteko eta dituzten zalantzei erantzuteko (call-centerra).